

I^{en} UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Angelu, 1997-V-19

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

25 urte iragan dira, zilar ezteiak ospatzen ditugu egun. Zorionak!

Hiru urtez segidan Euskal erakustokiko zuzendari nintzelarik antolatu ziren etxe horretan Baionako euskal asteak. 1972-an bururatu zelarik hirugarren astea erabakia hartu genuen *Ikas* elkartean sortuko genuela Udako Euskal Unibertsitatea, orduan ahal zen ofizialtasuna lortuz.

— Bordeleko Unibertsitateko Katedradun izanez Frantziako erakaskuntzako ministroaren izenean, Bordeleko errektoreak Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeoa utzi zuen gure gain.

— *Ikas*-en buruzagi gisa eta *Ikas*-en izenean galdegin nion kontseilu orokorrari diru laguntza bat, lortu izan zena.

— Euskaltzainburuorde gisa ardietsi nuen Euskaltzaindiaren babesa.

— Erabaki genuen Udako Euskal Unibertsitatea, zinez euskal unibertsitatea izanen zela, erakaskuntza euskaraz bakarrik emana izanen zelarik.

Hasi zen abuztuaren 28-an eta bururatu irailaren 8-an, ikasle multzo on baten aitzinean: 100 eta 130 artekoa. Erakasleak ziren: literaturan, Aita Villasante, Ibon Sarasola eta Jean Haritschelhar; linguistikan, Koldo Mitxelena, Alfonso Irigoyen eta M. Mourguiart; Historia eta edergintzan, Pierre Narbaitz, Jose Luis Lizundia, Juan San Martin; ekonomian eta bereziki laborantzan Xan Irigaray; antropologian, Jose Mari Sartrategi, J.M. Barandiaran eta Gehexan Bidart; pedagogian Patxi Altuna, Lertxundi eta Donostiako talde bat; gogoeta sailan, J. Azurmendi, P. Charritton eta Agirrebaltzategi.

Argi izan bedi lehen Udako Euskal Unibertsitatearen antolatzeko eta gero Landagoien-en 1976 arte bi laguntzaile on eta langile porrokatuak ukan nituela: Piarres Charritton eta Manex Goyhenetche, orduan *Ikas*-eko idazkari administratiboa.

Euskeran agertu nuen artikulua (*Eusker*a, 1974, 429.or) bukatu nuen esaldi honekin: “Agian hanitz urtez irauten du!” 25 urte irayan dira, beste haubeste dirauela! Zorionak hasi dutenei, Zorionak segitu eta hobetu dutenei. Dexteparek zion bezala bere liburuaren azken lerroan: *Debile principium melior fortuna sequatur*.